

Wilhelm von Humboldt-i buruzko aipamena 1842ko gutun batean

(A mention of Wilhelm von Humboldt in a letter dated in 1842)

Elortza, Jerardo

Mondragon Unib. Enpresa Zientzien Fak. Larraina, 16.
20560 Oñati

BIBLID [0212-7016 (2003), 48: 1; 307-311]

Zamorako Artxibo Probintzialean aurkitzen den gutun honek Pablo Pedro Astarloa eta Wilhelm von Humboldt-i buruzko albiste interesgarriak eskuratzen dizkigu. Bertan apologista bizkaitarraren hartzaro eta gaztaroko zertzelada ezezagunak argitzeko aukera eskaintzen zaigu eta, bide batez, hark Prusiako jakintsu euskaltzalearekin izan zituen harremanak gehixeago zehazten dira. Aipagarriak dira, batez ere, Astarloaren ikasketen inguruan esaten direnak eta Humboldt-ek euskararekiko erakusten duen jakin-min sutsua.

Giltza-Hitzak: Humboldt. Juan Mateo Zabala. Franco y accesible. Francisco Xavier Munibe. Larresoro. Hermosuras del bascuence.

Esta carta, que se guarda en el Archivo Provincial de Zamora, nos proporciona bastantes datos acerca de Pablo Pedro Astarloa y Wilhelm von Humboldt. Nos descubre aspectos desconocidos de la primera época de la vida del apologista vizcaíno, interesantes detalles de sus años de aprendizaje y de su carácter, así como curiosas matizaciones sobre su relación con el sabio prusiano.

Palabras Clave: Humboldt. Juan Mateo Zabala. Franco y accesible. Francisco Xavier Munibe. Larresoro. Hermosuras del bascuence.

Cette charte, gardée dans les Archives Provinciale de Zamora, nous fourni de nombreuses données concernant Pablo Pedro Astarloa et Wilhelm von Humboldt. Elle nous dévoile des aspects inconnus de la première époque de la vie de l'apologiste biscaïen, des aspects intéressants de ses années d'apprentissage et de son caractère, ainsi que de curieux détails sur sa relation avec le savant prussien.

Mots Clés: Humboldt. Juan Mateo Zabala. Franco y accesible. Francisco Xavier Munibe. Larresoro. Hermosuras del bascuence.

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakaten, 1801.
Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.

Orain arte argitaragabe egon den gutun hau Zamorako Artxibo Probintzialean aurkitu genuen duela urte batzuk. Juantxo Madariaga adiskidea eta biok joan ginen hiri hartara **Erro** izeneko fondoa arakatzera, José Ramón Urquijo Goitia eta María Jesús Álvarez Coca senar-emazteak eskuratu ziguten informazio eta laguntasunari eskerrak.

Fondo horretan daude gordeta Juan Bautista Erro Azpíroz (1773-1854) hazendista, politikoa eta idazle ezagunaren paperak. Garaiari zegokionez, andoaindar honi ibilbide politikoa eta pertsonal gorabeheratsu samarra tokatu zitzaion. Egia esan, ez zuen kargu faltarik izan: beste askoren artean, ministro izan zen Fernando VII. arekin (1823) nahiz Carlos María Isidro erregegoakoarekin (1836), baina orduko aldaketa politikoen eraginez batera eta bestera ibili beharra ere izan zuen, Lehenengo Karlistadaren ondoren eta ondorioz Bordele eta Baionan kokatu zelarik. Lapurdiko hiri honetan hil zen 1854an. Emaztearen partetik Toroko familia batekin senideturik zegoenez, bere eskuizkribu eta bestelako paperak Zamora aldera eraman zituzten. Horregatik aurkitzen dira, orain dela urte batzuek gero, probintzia horretako artxibo nagusian.

Juan Bautista Erroren zaletasun eta kezketariko bat euskarari buruzko hausnarketak eta ikerketak burutzea izan zen, nahiz eta bere ahaleginean arrakasta handiegirik lortu ez. Hainbat obra publikatu zuen XIX. mendearen hasieran gure hizkuntzaren inguruan. Bestalde, sasoi hartako idazle eta euskaltzale askorekin harremanak izan zituen. Horregatik ez da hain harrigarria Ignacio Luis Astarloaren gutun hau Erroren dokumentuen artean aurkitu izana.

Eskutitzak berak garbi asko azaltzen digu nor zen Ignacio Luis Astarloa: Pedro Jose Astarloa (1751-1821) sermolaria frantziskotarra eta euskal idazlearen nahiz Pablo Pedro Astarloa (1752-1806) euskararen gramatikoa eta apologistaren iloba. Ignacio Luis markinarra genuen, Oñatiko unibertsitatean katedradun izana 1807ko itxiera aurretik eta, estudioei berriz ekin zitzaienean, unibertsitate bereko errektore 1814-1815 ikasturtean. Gerora bere jaioterriko abade izan zen. Gutun hau ere Markinatik idatzita dago.

Gutun-hartzailea, berriz, Fidel Modet Eguia (1815 ing.-1884), Nafarroako familia ezagun baten baitan jaio zen Lizarran; karlistekin elkartu zen 1833an eta, Bergarako Hitzarmena sinatu zenean, kapitain-graduaria eutsi zion, baina eszedentzian; dena den, 1849an montemolinisten aurka aritzeagatik kapitain-erretiroarekin saritu zuten; Mendabian hil zen 1884an. Bere ama, María Leona Eguia Saenz de Buruaga, durangarra zenez, ez da harrizkoa Fidel Modetek Astarloatarrekin harremanak izatea.

Gutunaren hasieran aipatzen den Pablo Astarloaren obrak argitaratzeko arduraduna J.B. Erro bera izan daiteke. Eta geroxeago azaltzen den *El mundo primitivo* izeneko lana Errok 1815ean Madrilen kaleratu zuen *El Mundo primitivo o Examen filosófico de la antigüedad y cultura de la Nación Bascongada* liburua izango da zalantzarik gabe. Aurreratxoago agertzen zaigun Pio Elizalde (1774-1836) donostiarrari buruz "Director general de Provisiones durante la

guerra de Independencia” eta “Consejero de Estado” izan zela dio Fausto Arozenak. Juan Mateo Zabala bilbotarra (1777-1840) Zarauzko frantziskotarren komentuko buru zen 1827an, eta Bizkaiko herri-misioetan sermolaririk estimatuena; honen “arte bascondagoa” edo *El Verbo Regular Vascongado del dialecto vizcaíno* Gipuzkoako Diputazioak inprimarazi zuen 1848an, Agustín P. Iturriaga eta Juan Ignacio Iztuetaren aldeko iritziak entzun ondoren. Astarloak, berriz, *Apología de la Lengua Bascongada* (1803) eta beste lan laburrago batzuk bakarrik publikatu ahal izan zuen, euskararen gaineko argitalpenok sortutako zorrez beteta, 1806an Madrilen hil aurretik. Hurrengo lan esanguratsua ez zen 1883ra arte kaleratu: *Discursos filosóficos de la lengua primitiva*, alegia. Beste batzuk inprimatzeke gelditu ziren eta, beharbada, betiko galdu dira.

Pablo Astarloari buruzko argibideetatik bada azpimarratzea merezi duen pare bat, guk dakigunez, orain arteko ikerketetan ez baitira azaldu: bata Astarloak haurtzaroan F.X. Muniberen omenetan eskolan ondu zuen euskarazko poemaren gaineko albiste hunkigarria; eta bestea Astarloak filosofia eta teologiako ikasturteak Larresoroko seminarioan egin zituela dioena. Azken datu honek Aita Villasantek bere Euskal Literaturaren Historian Astarloaren ikasketei buruz idatzitakoak zehaztu eta osatu egiten ditu; gainera durangarraren euskara nahiz frantsesaren maila zenbaterainoko zen neurtzeko pista berriak eskaintzen dizkigu, eta Ipar eta Hego Euskal Herrien arteko harremanak nolakoak ziren zertxobait argitu ere bai. Eskertzeok dira, bestalde, ilobak osabaren izaerari buruz ematen dizkigun zertzeladak.

Gure apologistak Wilhelm Humboldt-ekin harremanak izan zituela bagenekien lehendik. Dena den, gutun honetan xehetasun interesgarriak eskaintzen zaizkigu, duela berrehun urte justu, Berlingo jakintsuaren eta Durangoko abadearen artekoak nola burutu ziren jakiteko. Harrigarria da prusiarrak euskararekiko erakusten duen interesa: egun guztian erdi-baraurik, esne-basokada batzuk bakarrik edanez, D. Pabloren azalpenak irentsi beharrean. Edonola ere, ilobari sinesten baldin badiogu, Astarloak ez zizkion Humboldt-i zekizkien guztiak jakinarazi.

Aipatzekoa da, bestalde, gerraz eta istiluz jositako garaia izan arren, Euskal Herrian XIX. mendearen hasieran Humboldt-en lanei jartzen zaien arreta. Ez da Astarloaren ilobak agertzen duen jakingura soilik. Neurri batean normala litzateke. Arguinizoniz delakoaren asmoa da, agian, azpimarragarriagoa: 1812ko *Ankündigung* edo Humboldt-en lanen iragarpena agertu orduko, honen gaztelaniazko itzulpena egin omen zen, nahiz eta inprimatu gabe geratu.

Eskutitzak dakarren ortografia bere horretan utzi dugu, inolako zuzenketa-rik gabe. Azkenik, eskerrak eman gura dizkiegu Joxe Azurmendi eta Joseba Agirreazkuenagari dokumentu hau argitaratzeko aukera eskaintzeagatik eta Angel García Sanz-i Fidel Modet-i buruzko argibideak eskuratzeagatik.

* * *

Marquina y Abril 27 de 1842

Sr. D. Fidel Modet

Mui Señor mio: hace mucho tiempo que no he tenido un rato tan placentero como el que me ha proporcionado su mui grata de 22 y su adjunta de mi antiguo condiscípulo en esa que conservo en mi poder.

Había ya consentido que jamás saldrían á la luz las obras de mi Tío Dn. Pablo, y si ahora no se verifica llevaré petardo por quinta vez. Ya se sabe á quien se los confió. A este sugeto se escribió ya por mi Padre el Licenciado Dn. Jose Antonio, ya por Fr. Pedro Provincial de Sn. Francisco hermanos de Dn. Pablo, se daban buenas palabras, pero no se pasaba de hay. La Diputación de Vizcaya se ofreció á su impresion, se aviso, se escribió, y nada se adelanto. En esto salio *El mundo primitivo* que dio lugar á mil congeturas nada favorables á la ansiedad que tenía el Pays por dhâs obras. En el año de 1827 me hallaba accidentalmente en Zarauz donde me anunciaron que Dn. Pio Elizalde escribió al vicario de Haya que si había en el pays bascongado alguno que pudiese revisar con acierto los discursos filosóficos, y arte de mi Tío, se lo enviarían a este fin, y que en seguida se esperase su impresion. Desde luego se señaló para tal operacion al P. Misionero Fr. Juan Mateo de Zabala unico sugeto en mi concepto que comprendio el mecanismo de la lengua bascongada con arreglo á los principios é ideas de la Apología de la lengua bascongada que escribió mi Tío. Este religioso ha muerto dejando escrito su arte bascongado que parece va á publicarle la Diputacion de Vizcaya ó Guipuzcoa pues ambas tienen á cada ejemplar para este fin. Ni Zabala ni el Pays tuvo la satisfaccion de cotejar su arte con el de mi Tío, si bien me persuado discreparan poco, pues que he quedado asombrado al saber el juego de las doscientas y seis conjugaciones que demuestra Zabala en el verbo bascongado siguiendo los principios de mi Tío. Diga V. á mi condiscípulo que si por su mediación logra la impresion de dhâs obras de mi Tío hara un servicio mui eminente al Pays, y á la literatura, y tambien querremos algun egemplar.

Lo personal de mi Tío conocio mui bien el que escribe la adjunta de V. Jamas se presento ostensible, ni hizo alarde de su precioso talento, y ciencia. Su caracter era demasiado franco y accesible: no distinguia entre amigos poderosos y comunes. Solo daba preferencia á los sabios, y mui particular á los que se oponian á sus doctrinas que eran mui raros. No he conocido logica mas delicada y fina que la suia.

Mi Tío Dn. Pablo Pedro de Astarloa nacio en Durango en 29. de Junio del año 1752 y murio en Madrid la tarde del día 3 de Junio de 1806 y fue enterrado el día siguiente en la Parroquial de San Martin. Era hijo legitimo del Licenciado Dn. Juan Bautista de Astarloa é Iturri Abogado y Mayorazgo de dhâ Villa de Durango, y de D^a Maria Angela de Aguirre y Olabe que tenia sus vinculos y bienes en esta de Marquina: quedo viuda y siendo mui niño Dn. Pablo paso á esta su casa de Oruetacoa con su familia. Recibio en Marquina la primera educacion, y siendo niño y escolar compuso un poema bascongado en obsequio del Sr. Conde de Peñafloreda Dn. Francisco Xavier de Munibe que llenó de justa admiracion á cuantos lo vieron. Estudio Filosofia y Teologia en el Seminario de Larrasoro [sic]; y cuando se coloco en su beneficio de Durango se dedico á la meditacion de los primores del bascuence.

Ya tenia mui adelantados sus trabajos cuando vino a visitarle á principios de este siglo, o fines del pasado Dn. Guillermo Humbolt [sic] sabio Humanista y Academico de Berlin. Se detuvo con el muchos dias examinando sus tareas: venia temprano á casa del Tío, y pasaba en ella todo el dia sin tomar mas alimento que dos ó tres vasos de leche, engolfado en la consideracion de las hermosuras del bascuence. Paso á Mundaca, y bolvio luego á tomar las notas y conocimientos que le prodigaba el Tío á escepcion de la conjugacion del Verbo bascongado que no se lo quiso franquear, por ser obra cuiu investigacion le costo muchos años de reflexion: asi me aseguro el mismo Tío.

Este Dn. Guillermo Humbolt escribio en Aleman sobre la estructura del bascuence, y se me asegura que el hijo mayor de Arguinzoniz lo tradujo al Español, pero no lo imprimio. Puede ser acaso la misma obra que yo vi anunciada en el año de 1814 hallándome de Rector de la Universidad de Oñate, y por si acaso diese algunas luces de mi Tío dare su resumen

Monitor del 3 de Abril de 1813

Un diario extranjero contiene el anuncio siguiente de una obra sobre la lengua y Nacion bascongada por M. Guillermo Humbolt hermano del celebre Viagero de este nombre. La primera seccion de esta obra contiene las observaciones de los Vascongados, su Pays & La segunda parte contiene un analisis de la lengua bascongada acompañada de fragmentos de obras de diferentes siglos de los siglos mas remotos hasta nuestros dias. A este analisis seguira un paralelo de la lengua bascongada con otras lenguas analogas para asignar á esta lengua el lugar que debe ocupar en las ramificaciones varias del lenguaje humano & No se que diga a V. mas.

Yo celebro tener esta ocasion de ofrecerme a V. y de que se me presente esta coyuntura para suplicarle recuerde mis afectos á Trifon, y a S^a Madre y Tía de V. de quienes es S. S. y Cappn. Q. L. B. S. M.

Ignacio Luis de Astarloa

Wilhelm von Humboldt Euskal Herria arakutzen, 1801.
Wilhelm von Humboldt investiga en Vasconia, 1801.
Wilhelm von Humboldts untersuchungen im Baskenland, 1801.